



COMPRENSIÓN DE TEXTOS ESCRITOS

DATOS

Apellidos:

Nombre:

DNI / NIE:

Señale lo que corresponda:

Enseñanza LIBRE / OFICIAL

Grupo / Profesor:

INSTRUCCIONES PARA LA REALIZACIÓN DE LA ACTIVIDAD

- Duración: **50 minutos**.
- Apague su **dispositivo móvil**.
- Escriba sólo con **bolígrafo azul o negro**.
- No olvide realizar **todas** las tareas.
- Escriba sus respuestas en **las hojas de respuestas**.
- Al finalizar, entregue **todas las hojas** utilizadas.

PUNTUACIÓN TOTAL: / 20



HOJA DE RESPUESTAS CTE

TAREA 1	MIREN NARBAIZA	6 item x 1 p. /6 PUNTU.
----------------	-----------------------	---------------	-----------------

<i>0</i>	1	2	3	4	5	6
<i>D</i>						
✓						

TAREA 2	MASKARAREKIN KIROLA EGITEAK EZ DU ESFORTZUAN ETA OXIGENAZIOAN ERAGINIK.	8 item x 1 p. /8 PUNTU.
----------------	--	---------------	-----------------

	EGIA/GEZURRA	
0. <i>Kirolari gutxi batzuk baino ez dira kexatzen maskarekin entrenatu behar izateagatik</i>	G	✓
1. Jende artean jarduera fisikoa egiteko maskara janzteia ez da kalean ibiltzeko janzteia bezain garrantzitsua.		
2. Kirolari batzuek kezka adierazi dute maskarekin entrenatu behar dutela eta.		
3. Ikerketek ez dute argitu kirola egitean maskarak oxigenazioan eragiten duen edo ez.		
4. Aldizkari batek kirolariek maskarekin izandako esperientziak argitaratu ditu.		
5. Kirolariak osasuntsu badaude, maskara ez dela kaltegarria ondorioztatu du ikerketa batek.		
6. Intentsitate handiko kirolean ere maskarak ez duela kalterik eragiten ondorioztatu du ikerketak.		
7. Ikerketak maskara mota baten eraginak baino ez ditu aztertu.		
8. Erdiko kapa aldagarria ez ezik, bakterioen aurkako kapa eta ura uxatzen duen materiala izan behar ditu, adituen esanetan, maskara egokiak.		



TAREA 3	TRISTURAK GURE GORPUTZEAN ERAGIN FISIKOA DU. 12 item X 0,5 p. /6 PUNTU.
----------------	---	-----------------

0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12
C												
✓												



TEXTOS CTE

<p>TAREA 1 Irakurri Gaztezulo aldizkarian Miren Narbaiza musikariari egindako elkarrizketa eta elkartu galderak eta erantzunak. Galdera bat sobera dago. 0 adibidea da.</p>	<p>6 item x 1 p./6 puntu</p>
--	-------------------------------------

MIREN NARBAIZA: “ASPALDIAN ENTZUNDAKO DISKOEK EZ NAUTE ERABAT BETE”

MICE izena jarri dio Miren Narbaiza (Eibar, Gipuzkoa, 1986) musikariak bere bakarkako lehen proiektuari. Napoka Iriaren zilbor-hestea eten eta ahots propioa aurkitzeko abenturan murgildu da.

0.....

Napoka Iriarekin geldi geunden une batean izan zen; lagun batek erakusketa bat animatzeko eskatu zidan, eta hura izan zen nire bakarkako lehen emanaldia. Ekitaldi horretarako hainbat kantu prestatu nituen, eta hor piztu zitzaidan proiektu honi heltzeko grina. Napokarekin amaitu genuenean, beraz, erraz ekin nion bakarkako lanari.

1.....

Ez, musikalki asko estimatzen ditudan lagunak izan ditut alboan, batez ere, Joseba B. Lenoir. Disko hau elkarlan bat izan da; proiektuaz hitz egin nionean, bere burua aurkeztu zuen lana ekoizteko, eta maketarekin lagundu zidan. Ilargi Agirre ere Perlak taldetik ezagutzen nuen, eta Napokan ere lan egina nintzen Iñigo Irazokirekin.

2.....

Joera daukat iluntasunera hurbiltzeko, asko identifikatzen naiz atmosfera horrekin, giro horiekin; Mikel Larratxek egin zituen azaleko argazkiak, eta hasieratik gustatu zitzaizkidan, soiltasuna eta indarra transmititzen dutelako. Kantuek ere badute iluntasun puntu bat.

3.....

Bai, gehienetan; banda giroan osatu dugu diskoa, eta printzipioz, bostok eskainiko ditugu kontzertuak. Dena den, emanaldi intimoagoak ere emango ditut, batzuetan Josebarekin, bestetan bakarka.

4.....

Aurretik ere askatasunez sortzeko aukera izan dut, baina egia da oraingoan nahi nuena egiteko gai izan naizela. Gertatzen zaizkidan gauzek inspiratu naute oraingoan, ariketa introspektiboa egin dut; inguratzen nauena ere kontutan izan dut, aldaketen beharrak, bizitzeko gogoak... sentipen horiek inspiratu naute.

5.....

Oraindik ez dakit non dagoen, baina arrera ona izaten ari da, eta horrek lasaitzen nau. Atzean utzi ditut hasierako urduritasunak, eta erabat eroso sentitzen naiz MICErekin. Egungo panorama musikalaren inguruan, aitortu beharra daukat pixka bat galduta nagoela; badaude gauza interesgarriak, baina niri gustatzen zaizkidan taldeak ez dira entzutetsuenak izaten. Funtzionatu duten formulak etengabe errepikatzen diren sentsazioa daukat; aspaldian entzundako diskoek ez naute erabat bete.

6.....

Jotzea lortzen badut, bai, izango da Miren Narbaizaren urtea! Gogotsu eta ilusioz betea hasi dut etapa berri hau; bihar Iruñean izango gara, 26ean Bergaran, otsailak 1 Bilbon, 4an Durangon, 16an Zarautzen... zuzenekoa sendotuz joango gara, talde bezala definitu arte.

(Ane Urrutikoetxea, *Gaztezulo*, moldatua.
2021ko urtarrilaren 23a)



GALDERAK

- A. Askatasun osoz sortzeko aukera izan duzu; zerk inspiratu zaitu?
- B. Bakarkako lehen lana bai, baina ez duzu bakarrik osatu.
- C. Doinu alai eta goibelak bateratu nahi izan dituzu. Pozik al zaude emaitzarekin?
- D. **Eskarmentu handiko musikaria zara, eta bakarkako lehen lanarekin ausartu zara; nondik sortu da MICE?**
- E. Non kokatuko zenuke MICE egungo panorama musikalean?
- F. MICEren azalak zein barruko zortzi abestiek iluntasun bat transmititzen dute; barruan duzunaren isla da?
- G. Taula gainera bostok igotzeko asmoa duzue?
- H. Urtea hasi, eta dagoeneko baduzu lotutako kontzertu sorta; Miren Narbaizaren urtea izango da?

<p>TAREA 2 Irakurri <i>Gaztezulo</i> aldizkariko testua eta adierazi esaldiak egia (E) edo gezurra (G) diren. 0 adibidea da.</p>	<p>8 item x 1 p./8 puntu.</p>
---	--------------------------------------

MASKARAREKIN KIROLA EGITEAK EZ DU ESFORTZUAN ETA OXIGENAZIOAN ERAGINIK

Maskara eta kirol ekintzak bateragarriak izateak arraroa dirudi, eta kirolari asko kexu dira maskarekin entrenatu beharragatik. Baina kaletik ibiltzeko maskara beharrezkoa bada, are garrantzitsuagoa da maskara erabiltzea jende artean kirola egiterakoan, arnasketa askoz ere indartsuagoa delako. Gauzak horrela, badira maskara erabiltzeagatik kezkatu diren kirolariak; osasuntsua ote da? Ez ote du errendimenduan edo oxigenazioan eragin negatiborik izango? Ikerketek ezetz diote.

International Journal of Environmental Research and Public Health aldizkarian argitaratutako ikerketa berriak dioenez, kirola egiten ari direnak pertsona osasuntsuak direnean, maskarak ez du eragin negatiborik. Errendimendua berdina da, eta baita oxigenazio maila ere, muskuluetan zein odolean. Intentsitate handiko kirol ekintzetan ere, emaitzak berdinak dira: kirolari osasuntsuengan maskarak ez du eragin negatiborik, eta ez dago hipoxiarako arriskurik.

Ikerketa maskara ezberdinekin egin dute, eta denekin emaitza berdina izan da. Ikerlarien esanetan, kirola egiteko maskara egokienak kanpoaldean ura uxatzen duen materiala dutenak dira, erdiko kapa aldagarria dutenak (filtraduna) eta barruko kapa (aurpegiarekin kontaktuan dagoena) bakterien aurkakoa dutenak.

(Ane Urrutikoetxea, *Gaztezulo*, moldatua
2020ko azaroaren 18a)



TAREA 3 Irakurri eta osatu <i>Gaztezulo</i> aldizkariko Jaione Dragdrømmerren testua. 0 adibidea da.	12 item x 0,5 p./6 puntu
--	------------------	---------------

TRISTURAK GURE GORPUTZEAN ERAGIN FISIKOA DU

Triste gaudenean gure ispiluak eskaintzen digun isla ez dugu horren begi onez ikusten, eta ez, ez da efektu bisual bat, benetan ...**0**..... gaude fisikoki.

Triste gaudenean, gure ingurukoek askotan esan ohi digute nekatuta sumatzen ...**1**....., begi zuloak, azala kolorerik gabe... ..**2**....., tristurak gure gorputzean aldaketa fisikoak eragiten ditu.

Ziurrenik, gertatu zaizu lagun batekin geratu eta hark ezer esan ...**3**....., begiratze hutsarekin, triste dagoela jakitea. Hori triste ...**4**..... aldaketa fisikoak agertzen direlako da, bai bere ahotsean, bai bere azalean, bai bere gorputzeko jarreran. Hain ikusgarriak ez diren beste zenbait ...**5**..... ere eragin ditzake tristurak: sabeleko mina, ...**6**..... gogoa, lo egiteko arazoak... Azalean ere aldaketak gertatzen dira. Azala idorrigo nabaritu dezakegu edo gune gorrixkak izan ditzakegu, dermatitisa izango ...**7**..... bezala. Begi zuloak sakondu egiten dira eta sekula baino gehiago belztu daitezke.

Baina, nolatan dira posible aldaketa hauek? Honen erantzuna ...**8**..... dute. Antsietateak, depresioak edota tristurak gure hormonetan eragina dute eta hauek dira gure azalaren oreka mantentzeaz arduratzen direnak.

(...) Gorputzeko jarrera ...**9**..... aldatzen da. Burumakurrago egon ohi gara. Gure ahots tonua ere baxuagoa eta monotonoagoa izan ohi da. Gure pisua ere aldatu daiteke: batzuk argaldu egiten dira, jateko gogoa galtzen dutelako, eta beste batzuk, berriz, gizendu, janariarekin duten harreman emozionala ...**10**.....Hala ere, hau guztia erabat normala dela azpimarratu beharra dago. Gure gorputza etengabeko aldaketan bizi da, eta baita gure gogo-aldartearen ere. Beraz, ez gara errudun sentitu behar, denboraldi batez triste ...**11**..... edota ispiluko isla gustatzen ez zaigulako.

(...) Horrelako egoera batean bazaude, laguntza profesionala ...**12**..... da gomendagarriena.

(Jaione Dragdrømmer *Gaztezulo*, moldatua
2022ko martxoaren 17a)

0. a. Txarragoa b. Gaizkiagoak c. Okerrago	1. a. Digutela b. Gaituztela c. Nautela	2. a. Alabaina b. Izan ere c. Ordea	3. a. Aurretik b. Gero c. Lehen
4. a. Dagoenarengan b. Dagoenari c. Dagoen	5. a. Aldaketa fisiko b. Aldaketa fisikoa c. Aldaketa fisikoak	6. a. Lo egitea b. Lo egiteko c. Lo egitera	7. a. Bagina b. Bagenu c. Balitzaigu
8. a. Hormona b. Hormonak c. Hormonek	9. a. Ere b. Ere bai c. Baita	10. a. Denez gero b. Dela eta c. Dela	11. a. Egoteagatik b. Egotea c. Gaudela
12. a. Eskatzea b. Eskatzeak c. Eskatzeko			



COMPRENSIÓN DE TEXTOS ORALES

PRUEBA DE CERTIFICACIÓN

DATOS

Apellidos:

Nombre:

DNI / NIE:

Señale lo que corresponda:

Enseñanza LIBRE / OFICIAL

Grupo / Profesor:

INSTRUCCIONES PARA LA REALIZACIÓN DE LA ACTIVIDAD

- Duración: **35 minutos**.
- Apague su **dispositivo móvil**.
- Escriba con **bolígrafo azul o negro**.
- Cada tarea se escuchará **dos veces**.
- Para cada una, el procedimiento será el siguiente:
 - **dos minutos** para leer el enunciado y la tarea
 - **primera escucha** del documento
 - **un minuto** para responder
 - **segunda escucha** del documento
 - **un minuto** para revisar las respuestas y anotarlas en la **hoja de respuestas** (reverso de esta página)
- Al finalizar, entregue **todas las hojas** utilizadas.

PUNTUACIÓN TOTAL: /20



HOJA DE RESPUESTAS CTO

TAREA 1	MARKEL ETXEBERRIA Entzun Euskadi Irratiko <i>Baipasa</i> saioko elkarrizketa hau eta parekatu zutabeak, adibidean bezala. 0 adibidea da. <p style="text-align: right;">8 item x 1 p.</p>	<p>..... / 8 PUNTU.</p>
----------------	--	-------------------------

0. <u>Markel Etxeberria</u>	A. Beste ikasketa batzuekin osatu zuen.
1. Paris	B. Elkarrizketak egin zituen.
2. Hurbiltasuna	C. Eraikina eta ingurua miresgarriak dira.
3. Ikasketak	D. Erakargarria iruditu zitzaion.
4. Artea	E. Erasmus egiten ari zenean ezagutu zuen.
5. Lan aukera	F. Ez da dirudien bezain ona.
6. Lantokia	G. Lankide askorekin elkarlanean aritzen da.
7. Lan-giroa	H. Munduko hainbat hiritan aritu da.
8. Eginkizuna	I. <u>Zestoarra da.</u>

0	1	2	3	4	5	6	7	8
I								
✓								



TAREA 2	CARLOS GOROSPE MARGOLARIA Entzun Euskadi Irratiko <i>Baipasa</i> saioko elkarrizketa hau eta adierazi esaldiak egia (E) ala gezurra (G) diren. 0 adibidea da. 10 item x 0,5 p. /5 PUNTU.
----------------	---	-----------------

	EGIA/GEZURRA	
0. Hileko azken igandeetan izaten da azoka.	G	✓
1. Euskal Herriko margolari elkarteak antolatzen du azoka.		
2. Boulevarreko azokan artistek ez dute margotzen, baina beraien obrak saltzen dituzte.		
3. Carlos Gorospek elkarte barruan baino ez du margotzen.		
4. Etxeko animaliak ez ezik, basatiak ere margotzen ditu.		
5. Bezeroek eskatzen diotena bakarrik margotzen du.		
6. Astean behin egiten den azokan saltzen ditu animalien irudiak.		
7. Argazki egokiak emateko, aholkuak ematen dizkie bezeroei Carlosek.		
8. Argazkian dauden bezala margotzen ditu Carlosek, ahalik eta errealisten.		
9. Animaliak ez ditu aurrez aurre izaten, beti argazkietatik egiten ditu marrazkiak.		
10. Une honetan, Internetez bezero batek bidalitako argazki bateko animalia ari da margotzen.		



TAREA 3	CROISSANTA Entzun Euskadi Irratiko Amarauna saioko albistea eta aukeratu erantzun zuzena. 0 adibidea da.	7 item x 1 p. /7 PUNTU.
----------------	---	--------------------------------------

0. Zein da munduan gehien kontsumitzen den opila?
- a) **Croissanta**
b) Donutsa
c) Napolitana
1. Zer dio croissantari buruz?
- a) Ez da jende gehienak uste duen herrialdekoa.
b) Frantzia egin zituzten lehenengo croissantak.
c) Vienan croissantaren eguna ospatzen da.
2. Aurkezleek esan dute croissanta:
- a) Bihotz gaiztokoei ez zaiela gustatzen.
b) Ia edonola jan daitekeela.
c) Kalte gehiegi eragiten dituela eta muzin egitea komeni dela.
3. Zer esan dute Harori buruz?
- a) Dani Lasak jatetxe bat zabaldu du aste honetan.
b) Egurrezko labe bat daukate gozoak egiteko.
c) Udan ekin zioten jauregi bateko jatetxean lan egiteari.
4. Dani Lasaren arabera:
- a) Etorkizunean jende gutxiri gustatuko zaizkio croissantak.
b) Jatetxean egiten ez dituzten arren, oso gustuko ditu.
c) Jendeak asko eskertzen du croissantak eskaintzea.
5. Zer esan du sukaldeko matematikari buruz?
- a) Croissantak gantz eta gantz gutxiago badu, jendeari ez zaiola gustatuko.
b) Croissantak sortu baino lehen, matematika formula bat landu zutela.
c) Zenbait osagai batzeak arrakasta lortzen laguntzen duela.
6. Zer dio Dani Lasak croisantei buruz?
- a) Croissantak testura desberdin asko dituela eta hori erakargarria dela.
b) Denok oroitzen ditugula beste garai bateko croissantak, hobeak baitziren.
c) Testurak aztertzeo croissantak oso interesgarriak direla.
7. *Confort food* kontzeptua:
- a) Aurkezleek Daniri esker ezagutu dute.
b) Danik irakatsi dien hirugarren kontzeptua da.
c) Ez dute guztiz ondo ulertu.

0	1	2	3	4	5	6	7
A							
✓							



MEDIACIÓN ESCRITA

DATOS

Apellidos:

Nombre:

DNI / NIE:

Señale lo que corresponda:

Enseñanza LIBRE / OFICIAL

Grupo / Profesor:

INSTRUCCIONES PARA LA REALIZACIÓN DE LA ACTIVIDAD

- Duración: **25 minutos**.
- Apague su **dispositivo móvil**.
- Escriba con **bolígrafo azul o negro**.
- Recuerde: **si no cumple la tarea**, la calificación será 0.
- Escriba su texto en **la hoja que se le facilita**.
- Al finalizar, entregue **todas las hojas** utilizadas.

PUNTUACIÓN MEDIACIÓN ESCRITA: /10

PUNTUACIÓN MEDIACIÓN ORAL: /10

PUNTUACIÓN TOTAL MEDIACIÓN: /20

PRUEBA DE CERTIFICACIÓN



MEZUA IKASKIDEEI

Zure euskara klaseko ikaskideok plan bat egin behar duzue. Hiru plani buruzko informazioa prestatu duzu, eta guztiei email bat idaztea erabaki duzu informazio hori emateko. Idatzi emaila, erregistro informalean, eta kontatu hiru planei buruzko xehetasunak. Informazioa zure hitzekin adierazi behar duzu.
80-100 hitz.

..... /10 PUNTOS

Antzerkia Gasteizen

Noiz: uztailaren 16an,
19:00etan
Nola iritsi: garraio publikoan
Prezioa: sarrera, 20 euro.

**Txangoa Mirandako
San Juan mendira**

Noiz: abuztuaren 2an,
goizeko 09:00etan
Nola iritsi: oinez
Prezioa: bazkariko
gastuak:15 euro.

Hondartzara Donostiara

Noiz: abuztuaren 15ean eguna
pasatzera.
Nola iritsi: autobusez edo
autoz
Prezioa: garraioa eta hango
otordua: 30 euro



MEDIACIÓN ESCRITA

NOMBRE Y APELLIDOS:



PRODUCCIÓN Y COPRODUCCIÓN DE TEXTOS ESCRITOS

PRUEBA DE CERTIFICACIÓN

DATOS

Apellidos:

Nombre:

DNI / NIE:

Señale lo que corresponda:

Enseñanza **LIBRE** / **OFICIAL**

Grupo / Profesor:

INSTRUCCIONES PARA LA REALIZACIÓN DE LA ACTIVIDAD

- Duración: **60 minutos**.
- Apague su **dispositivo móvil**.
- Escriba sólo con **bolígrafo azul o negro**.
- No olvide realizar **las dos tareas**.
- Recuerde: **si no cumple la tarea**, la calificación será 0.
- Escriba sus textos en **las hojas que se le facilitan**.
- Al finalizar, entregue **todas las hojas** utilizadas.

PUNTUACIÓN TOTAL : / 20



PRODUCCIÓN Y COPRODUCCIÓN DE TEXTOS ESCRITOS

TAREA 1	PRODUKZIOA: BLOG BATEAN SARRERA Interneteko blog batean galdera hau irakurri duzu: <i>“Nola hasi ahal naiz osasuna zaintzen?”</i> Idatzi blog horretan eta <u>kontatu</u> zuk zer egiten duzun osasuna zaintzeko. <u>Azaldu</u> zure hirian bizitza osasuntsua izateko zer jarduera egin daitezkeen. 125 hitz inguru /10 PUNTU.
---------	---	------------------

TAREA 2	KOPRODUKZIOA: GUTUN INFORMALA Zure lagun bat atzerrian bizi da. Udan bisita egitea erabaki duzu. Idatzi eta <u>kontatu</u> noiz joan nahi duzun eta norekin. <u>Eskatu</u> bidaia hobeto antolatzeko informazioa eta galdetu hiriari buruzko zerbait. <u>Azaldu</u> hirian zer egitea gustatuko litzaizukeen. 125 hitz inguru./10 PUNTU.
---------	---	-----------------



PRODUCCIÓN Y COPRODUCCIÓN DE TEXTOS ESCRITOS

NOMBRE Y APELLIDOS:

Empty writing area for the student's response, bounded by vertical lines on the left and right.



CLAVES DE RESPUESTA

COMPRENSIÓN DE TEXTOS ESCRITOS

TAREA 1 MIREN NARBAIZA: “ASPALDIAN ENTZUNDAKO DISKOEK EZ NAUTE ERABAT BETE”

0	1	2	3	4	5	6
D	B	F	G	A	E	H
✓						

TAREA 2 MASKARAREKIN KIROLA EGITEAK EZ DU ESFORTZUAN ETA OXIGENAZIOAN ERAGINIK

	EGIA/GEZURRA	
0. <i>Kirolari gutxi batzuk baino ez dira kexatzen maskarekin entrenatu behar izateagatik</i>	G	✓
1. Jende artean jarduera fisikoa egiteko maskara janzteak ez da kalean ibiltzeko janzteak bezain garrantzitsua.	G	
2. Kirolari batzuek kezka adierazi dute maskarekin entrenatu behar dutela eta.	G	
3. Ikerketek ez dute argitu kirola egitean maskarak oxigenazioan eragiten duen edo ez.	G	
4. Aldizkari batek kirolariek maskarekin izandako esperientziak argitaratu ditu.	E	
5. Kirolariak osasuntsu badaude, maskara ez dela kaltegarria ondorioztatu du ikerketa batek.	E	
6. Intentsitate handiko kirolean ere maskarak ez duela kalterik eragiten ondorioztatu du ikerketak.	E	
7. Ikasketak maskara mota baten eraginak baino ez ditu aztertu.	G	
8. Erdiko kapa aldagarria ez ezik, bakterioen aurkako kapa eta ura uxatzen duen materiala izan behar ditu, adituak esanetan, maskara egokiak.	E	

TAREA 3 TRISTURAK GURE GORPUTZEAN ERAGIN FISIKOA DU

0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12
C	B	B	A	A	A	B	B	C	A	B	A	A
✓												



CLAVES DE RESPUESTA

COMPRENSIÓN DE TEXTOS ORALES

TAREA 1: MARKEL ETXEBERRIA

0	1	2	3	4	5	6	7	8
I	E	D	H	A	B	C	F	GW
✓								

TAREA 2: CARLOS GOROSPE MARGOLARIA

	EGIA/GEZURRA	
0. Hileko azken igandeetan izaten da azoka.	G	✓
1. Euskal Herriko margolari elkarteak antolatzen du azoka.	G	
2. Boulevarreko azokan artistek ez dute margotzen, baina beraien obrak saltzen dituzte.	G	
3. Carlos Gorospek elkarte barruan baino ez du margotzen.	G	
4. Etxeko animaliak ez ezik, basatiak ere margotzen ditu.	E	
5. Bezeroek eskatzen diotena bakarrik margotzen du.	G	
6. Astean behin egiten den azokan saltzen ditu animalien irudiak.	G	
7. Argazki egokiak emateko, aholkuak ematen dizkie bezeroei Carlosek.	E	
8. Argazkian dauden bezala margotzen ditu Carlosek, ahalik eta errealisten.	G	
9. Animaliak ez ditu aurrez aurre izaten, beti argazkietatik egiten ditu marrazkiak.	E	
10. Une honetan, Internetez bezero batek bidalitako argazki bateko animalia ari da margotzen.	G	

TAREA 3: CROISSANTA

0	1	2	3	4	5	6	7
A	C	B	C	B	C	A	A
✓							



**PAUTAS DE CORRECCIÓN
MEDIACIÓN ESCRITA**

Respetar la situación comunicativa y el registro.

Transmitir la información necesaria para hacer comprender cómo son los planes.

Desarrollar la información con sus propios recursos.

Explicar los datos más relevantes de las actividades que se proponen.



PAUTAS DE CORRECCIÓN

PRODUCCIÓN Y COPRODUCCIÓN DE TEXTOS ESCRITOS

B1

Tarea 1

Expresar qué es lo que haces para cuidar de tu salud.

Explicar qué se puede hacer en tu ciudad para llevar una vida saludable.

Aconsejar a los lectores que hacer para cuidar la salud.

Tarea 2

Saludar y despedirse de un amigo.

Expresar los planes que tienes, cuándo y con quién vas a ir.

Pedir información de cómo hacer mejor el viaje.

Preguntar algo sobre la ciudad.



PRUEBA DE CERTIFICACIÓN-BLOQUE B

MEDIACIÓN DE TEXTOS ORALES

Konta iezaiozu zure Irlandako lagunari ezkondu aurretik senar- eta emazte-gaiek lagunekin egiten dituzten ospakizunak. Horretarako, ondoren duzun testua erabil dezakezu.

EZKON AURREKO AGURRAK, ASPALDIKO OHITURA.

Ezkondu aurretik lagun edo senideekin agur-festa egitea nahikoa zabaldua dago gure artean. Ez da ohitura berria, gainera. Festa horien jatorria eta bilakaera aztertu ditugu.

Gure alboan festa-giroan dabilen koadrila bat ikusi eta haien artean bat mozorrotuta badago, askori ideia bera datorkigu burura: desberdin jantzitakoa laster ezkonduko da. Izan ere, ezkon aurreko agurrak egitea gure artean zabaldua dagoen ohitura da. Lagunek eta senitartekoek antolatzen diote festa, eta egun bakarreko, biko edo hiruko planak izaten dira, helburu jakin batekin: ongi pasatzea.

Ohitura horrek gure garaikoa edo modernoa badirudi ere, historiari erreparatzen badiogu antzinako gizarteetan ere antzerakoak bazirela ikusiko dugu. Antzinako Mesopotamian sortu omen ziren ezkon aurreko agurrak. Gaur egun, paintball, tuppersex, sokamuturra, jokoak, upategi bat ezagutzea, bainuetxe batean erlaxatzea...; amaierarik gabeko zerrenda osatuko genuke ezkon aurreko agurretan egin daitezkeen planak zerrendatu beharko bagenu. Logroño, adibidez, horrelako festak debekatu egingo zituztela esan zuten, jende asko joaten zelako eta festa horiek hiriko lasaitasuna oztopatzen zutelako. Donostian ez da horretarako beharrik: "Kalean ez dago horrelako iskanbilarik eta guk ere ez dugu eztabaida larririk izan gure itsasontzietan antolatutako jaietan".

PRODUCCIÓN DE TEXTOS ORALES (MONÓLOGO)

- **GURE ARROPA** Ari buruz hitz egin behar duzu. Arropa erostean moda jarraitzen duzun, denda txikietan ala merkataritza guneetan erosten duzun... kontatu behar diguzu. Arropa gehiegi erabiltzen dugu eta hau kaltegarria da gure ingurugirorako. Zer egin beharko genuke arropa gutxiago erabiltzeko?

COPRODUCCIÓN DE TEXTOS ORALES (DIÁLOGO)

ENUNCIADO CANDIDATO A

- Beganismoa izango dugu eztabaidagai. Begano izatea erabaki zenuen orain dela hainbat urte. Zure ustez haragi kontsumoa gehigizkoa da eta murriztu egin beharko genuke. Defendatu beganismoaren alde onak eta arrazoitu zure argudioak.

ENUNCIADO CANDIDATO B

- Beganismoa izango dugu eztabaidagai. Ez duzu ulertzen begano izatearen onurak eta haragia jaten jarraitzeko asmoa duzu. Begano izatea moda bat dela uste duzu eta ez duzu uste haragia kaltegarria denik. Defendatu zure postura eta arrazoitu zure argudioak.